

# FUNTSEZKO ELKARTEAK



Aitor Aiestaran  
Ander Barkin  
Maialen Etxebeste  
Miren Garmendia

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Gure proiektuak funtziona dezan ezinbestekoa dugu beste elkarteekin eta hornitzaileekin aliantzak egitea. Izan ere, batetik, gure proiektua egiteko piezak egingo dituen enpresa bat beharko dugu. Bestetik, eguzki plakak saltzen nahiz instalatzen dituen beste komertzio batekin ere harremanetan jarri beharko dugu; eta horrez gain, argi sentsoareak eta motorra beharko ditugunez, elektronikako enpresa adituak beharko ditugu, hauetan ere sentsoareak eta motorrak erosi eta instalatu ahal izateko. Azkenik, mugikorretik pertsiana kontrolatu ahal izateko, programazio teknologikoan lan egiten duen jendearen laguntza beharko dugu.

Aliantza horien artean elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza sortuko dugu. Guk, bereziki, Puertas Merinorekin kontaktatuko genuke, pertsianak instalatzen dituen Donostiako enpresa dela eta. Horrez gain, Persianas Egokirekin ere harremanetan jarriko ginateke, elkarte mota honen helburua materialen eskuragarritasuna bermatzea delako, hau da, motorra nahiz pertsianen piezak eskuratuko dizkigutenak izango direlako. Ondorioz, enpresa hori gure hornitzailea izango da. Bestetik, Auto Solar izeneko enpresak ere lagunduko liguke eguzki plakak erosiz eta instalatuz. Azkenik, enpresa teknologiko batekin jarri beharko genuke kontaktuan, esan bezala, honek gure proiektua bere osotasunean burutua egotea ahalbidetuko duelako. Hori I-Tec Gestión e Innovación Tecnológica (Donostian kokatua dagoena) izan liteke.

Horrez gain, bazkideak ere izango genituzke. Hasteko, taldea osatzen dugun pertsona bakoitzak dituen gaitasunak erabiliz enpresa hobetzeko aukera izango genukeelako. Ander Barkin ordenagailuekin trebea denez, informatikarekin zer ikusia duen edozein gai kudeatzeaz arduratuko da. Berak sortu zuen iadanik gure enpresari dagokion logoa. Horrez gain, gure enpresaren webgunea sortzeaz ere arduratuko da, beti ere taldekideon ideiak jasoaz. Bestalde, esan bezala ordenagailuekin ederki moldatzen denez, publizitateari dagokion lana ere berari egokituko litzaioke, bere irudiak eta esloganak egiteko abileziak, jendea erakartzen lagunduko ligukeelako.

Aitor Aiestarani dagokionez, marrazketa teknikoa ikasi duenez, eta hortaz, horretan trebea denez, piezen diseinuaz arduratuko da.

Miren Garmendia kudeaketa lanetan ona denez, hau da, besteen lana antolatzeko trebezia duenez, taldeko eginbeharrak eta jarraitu beharreko pausuak beraren esku geratuko lirateke. Berak esango luke zer izango litzatekeen ona eta zer ez enpresarentzat. Beste era batera esanda, enpresa aurrera ateratzeko alde positibo eta negatiboak aurreikusiko lituzke.

Maialen Etxebestek, ordea, komunikazioari dagokion arloa bereziki garatua duenez, bere esku geratuko lirateke beste enpresekin kontaktua ahalbidetzen duten lanak. Horrez gain, proiektua aurkezterako garaian, bera izango litzateke honen aurkezle nagusia.

Amaitzeko, bai hornitzailea eta bai erosleak oso garrantzitsuak izango dira gure enpresarentzat. Hornitzailearik gabe ez genukeelako pertsianarik izango eta ezingo genukeelako diru iturririk izan.